

# *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa:* ezaugarrietatik gorputz-atalen polisemia-kasuetara

JAUREGIZAR, Amaia  
Euskaltzaindia. Dialektologia lantaldea

Noiz jaso: 2019-01-23

Noiz onartua: 2019-03-14

*Euskera*. 2018, 2, 1. 261-298. Bilbo  
ISSN 0210-1564

*Erizkizundi Irukoitza* hartu izan da *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* aurrekarizat, baina informazioaren bilketa-prozeduran zenbait bat-etortze badira ere, helburuetan dituzten desberdintasunak nahiko arrazoi dira elkarren aurrekarizat edo ondorengotzat ez hartzeko.

Euskarazko hizkuntza-atlasa argitaratzen amaitu ez den lana denez gero, orain artekoan ez da izan, beste hizkuntzetan bezala, bertan bildutako informazioaren gaineko azterketa egiteko aukera handirik. Bada, gorputz-atalei dagozkien galderetan bildutako informazioan oinarrituta polisemia-kasuak aztertuko dira galdera honetan, hizkuntza-atlas honen aberastasuna erakustearen mesedetan.

**Gako-hitzak:** hizkuntza-atlasgintza, *Erizkizundi Irukoitza*, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*, gorputz-atalak, polisemia.

Se ha considerado el *Triple Cuestionario* de Azkue como antecedente del Atlas Lingüístico de las Variedades del Euskera. Pero si bien es cierto que hay coincidencias en el procedimiento de recogida de información, las diferencias que plantean en los objetivos son suficiente razón para no considerarlos como preludio y consecuencia.

Al ser todavía el Atlas Lingüístico del Euskera un trabajo inconcluso, no ha habido en este caso demasiadas oportunidades de estudiar lo publicado, a diferencia de lo que sucede en los atlas de otras lenguas. Pero con lo publicado hasta ahora, mas en concreto con la información recogida de las preguntas que hacen referencia a los partes del cuerpo humano, se han estudiado varios casos de polisemia, todo ello como muestra de la riqueza de este atlas.

**Palabras clave:** Atlas lingüístico, *Triple Cuestionario*, Atlas Lingüístico de las Variedades del Euskera, partes del cuerpo, polisemia.

Le Triple Questionnaire d'Azkue a été considéré comme le premier pas de l'Atlas Linguistique des Variétés du Basque. Mais même s'il est certain que des coïncidences existent dans le processus de recueil d'information, les différences constatées dans les objectifs constituent une raison suffisante pour ne pas les considérer comme un prélude et une conséquence.

L'Atlas Linguistique n'étant pas encore achevé, il n'y a pas eu dans ce cas, à la différence des Atlas d'autres langues, énormément d'occasions d'étudier les publications existantes. Les travaux publiés jusqu'ici, plus précisément l'information recueillie grâce aux questions traitant des parties du corps humain, on a constaté plusieurs cas de polysémie. Cela prouve la richesse de cet Atlas.

**Mots-clés :** Atlas linguistique, *Triple questionnaire*, *Atlas des variétés locales de la langue basque*, parties du corps, polysémie.

Azkue's *Triple questionnaire* has been considered as the precursor of the *Linguistic Atlas of the varieties of the Basque language*. However, even when there are similarities in the processes to collect the information, the goals of both projects are so different that we consider this affirmation as not valid.

The project *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa* has not been concluded yet, contrary to other concluded Atlas languages. Thus, although there are not many options to analyse what has been published, we can examine some cases of polysemy by studying the published information about the questions referred to human body parts. That is a clear consequence of the richness of the Linguistic Atlas of the varieties of the Basque language.

**Keywords:** Linguistic Atlas, Triple questionnaire, Linguistic Atlas of the varieties of the Basque language, human body parts, polysemy.

## 0. Sarrera

Euskarazko hizkuntza-atlasgintza berandukoa dela esaten denean ez da esan nahi beranduegi iritsi dela, ezpada lehenengo hizkuntza-atlasak XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran argitaratzen hasi zirela kontuan hartuta, mende bateko tartean badagoela beste hizkuntza-atlasek egindakoa ikusi eta aztertzeko aukera. Halaber, mende bateko tartean egon badago euskarazko hizkuntza-atlasak aurrekariren bat izateko tartea, baina ezer zehaztu aurretik, aztertu beharrekoa da zer hartu izan den aurrekaritzat ere. Hori egin ahal izateko, nahitaezkoa da lanaren prozedurari ez eze, helburuari ere begiratzea.

Bestalde, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasean* galdera jakin bati tokian tokiko erantzun zehatza emateaz harago, bada herri-jakintzaren eremuan kokatu eta jasotako erantzun hori goitik behera aberasteko modua, asko baitira erantzun bati buruzko informazioarekin hornitutako galderak. Maparen ikusgarritasunak gainerako informazioa sarritan lausotzen badu ere, herri-kulturaren arloko informazio osagarri eta aberatsa izaten da maparen inguruko oharretan.

Oharretara heldu aurretik, galderen elaboraziotik galderen interpretaziora dagoen bidearen erdialdean jarrita, gorputz-atalen gaineko gaietan jasotako izendapenen ibilbidea aztertu da euskara ez den beste hizkuntza batzuetan (Baldinger 1964; Blank, Gévaudan eta Koch 2000; Brown 2005a; Brown 2005b). Horrenbestez, komenigarria izan liteke gorputz-atalen euskarazko izendapenen ibilbideari bi norabidetan erreparatzea: bate-tik, gorputz-atalen izendapen batzuek semantika-eremu bereko beste kontzeptu batzuk izendatzeko duten baliagarritasuna azalduta eta, bestetik, gorputz-atalen izendapen zenbaitek beste semantika-eremu batzuei erreferentzia egiten dien kontzeptuak izendatzeko duten baliagarritasuna aztertuta. Gorputz-atalak izendatzeko baliatutako forma askoren polise-mia-aukerak ugariak dira. Ugariak dira, berebat, herri-kulturarekin harreman estua izanik, metafora-metonymian oinarrituta sortutako izendapenak. Ugartasun horren lagin bat erakutsiko da artikuluko honetan, gorputz-atalen izendapenetatik hasi eta beste semantika-eremu batzuetara iritsita.

## 1. Hizkuntza-atlasgintza eta euskarazko hizkuntza-atlasgintza: aurrekari ez-egiazkoa

Euskarazko hizkuntza-atlas bat izatearen beharrezana sentitzen hasi zenetik asmoa gauzatzen hasi arte mende erditik gora igaro da eta ia mende bat pasatu da euskarazko hizkuntza-atlas bat izatearen beharrezana sentitzen hasi eta argitaratzen hasi zen arte. Beraz, horrek esan nahi du denborari, azken batean, urteei dagokienez, alde handia dagoela abiatu zen urteetatik argitaratzen hasi zen urteetara, sorreratik garapenera eta, azken batean, asmoetatik emaitzetara.

Euskarazko hizkuntza-atlas bat izatearen gogoaren jatorrira joanez gero, lehen hizkuntza-atlas oso moduan egin den *Atlas Linguistique de la France* (ALF, 1902-1910) argitaratu zen urteetatik ez dago gehiegi urrundu beharrik. Osoa, bukatua, ez den neurrian, ez da askotan benetako lehen hizkuntza-atlasa izateak beharko lukeen zilegitasunaz aipatu Georg Wenkerrek egindako hizkuntza-atlasa<sup>1</sup>, baina 1881ean kokatu beharrekoa da, ALF baino hogeitertetik gora lehenago. Aipatutako hizkuntza-atlas horretan, J. Gilliéronen, fonetikaz haraindikoak ere bildu ziren, lexikoaren, morfologiaren eta sintaxiaren mesedetan<sup>2</sup>. Egia esan, hizkuntzaren askotariko alderdiak kontuan hartzen zituen hizkuntza-atlas hau garai hartan fonetika bakarrik kontuan hartzen zuten ikerketen nagusigoari erantzuteko ere sortu zen (Julià, 2007: 88).

Euskarari dagokionez, Euskaltzaindia bere ehun urtekoa betetzen ari den honetatik ehun urteko atzera-jauzia egin beharra dago, euskarazko hizkuntza-atlasaren beharrezana lehenengoz aipatu zuen Julio Urquijoren hitzetara joateko. 1921ean Menéndez Pidal izan zen euskarazko hizkuntza-atlas baten premia sumatu zuena. Urte berean, zehazki urriaren 27an, Resurrecion Maria Azkuek, artean euskaltzainburu zela, urrats bat gehiago egin zuen, ez

---

<sup>1</sup> Fonetika-gaira bideratutakoa da hizkuntza-atlas hau. Bere helburua alemana aztertzea izan zen, lege fonetikoaren erregularitasunaren berri ematea. Horretarako, maisu-maistrengandik jasotako gutunak baliatzea otu zitzaion. Ahaleginak ahalegin, ez zuen lortu alemanaren dialektoen mugak zehaztea.

<sup>2</sup> Lexikoa eta fonetika ziren hizkuntza-alderdi nabarmenenak.

horrenbeste euskarazko hizkuntza-atlasaren egiazko garapenerako; bai, ordea, euskarazko ahozko materialen balizko baliagarritasunerako: *Erizkizundi Irukoitza*. Gipuzkoako Foru Diputazioan izandako osoko bilkuran aurkeztu zuen, fonetikan, morfologian eta lexikografian oinarritutako galde-sorta hori, geroago, 1922an, Euskal Herrian barrena<sup>3</sup> inkestagile aproposalak<sup>4</sup> gara zezaten prestatutakoa. Tartearen izan zen inkestagileak aukeratu eta galde-sorta garatzeko ere, baina bildutako material guztitik urria izan zen –laburpen batzuk salbu– Luis Villasantek, 1984an euskaltzainburu zenak, aitortu bezala, *Euskera* aldizkarian ezagun egin zena (Iker 3, 1984: 8).

*Erizkizundi Irukoitza* aipatu izan den askotan azaldu izan da euskarazko hizkuntza-atlasa eta euskarazko hizkuntza-atlasa aipatu izan den beste horrenbestetan azaldu izan da *Erizkizundi Irukoitza*. Zehatzago esateko, *Erizkizundi Irukoitza* euskarazko hizkuntza-atlasaren aurrekotzat hartu izan da edo, bestela esanda, euskarazko hizkuntza-atlasa hartu izan da *Erizkizundi Irukoitzaren* jarraikotzat. Helburuari erreparatu gero, bien arteko lotura hori ez litzateke horren erraz eta zuzen egin beharko, ordea: Mitxelenak eta Villasantek esan bezala, bata eta bestea lantzeko inkesta-metodologia gorabehera, helburuei erreparatu behar zaie, hain zuzen ere, hortxe dagoelako *Erizkizundi Irukoitza* euskarazko hizkuntza-atlasaren egiazko aurrekaria ez izatearen arrazoia. Lanaren erabilerari dagokionez gerta liteke *Erizkizundi Irukoitzaren* erabilera dialektologia-ikerketetara edo hizkuntza-atlasgintzari dagozkionetara bideratzea.

Ahozko jardunean oinarritutako inkestak dira bi ikerketen jatorrian daudenak, baina *Erizkizundi Irukoitza*, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a ez bezala, ez zen euskarazko dialektoak ezagutzeko lagungarri izan edo, hobeto esanda, hori ez zen izan Azkueren jomuga behinena. Mitxelenak (1964: 471) arrazoibide bikoitz baten bitartez azaltzen du bere iritzia. Lehenengo arrazoia helburuarekin lotzen du: Akademiak euskararen ba-

<sup>3</sup> 260 herritan egin ziren inkestak, nahiz eta 172 herritako koadernoak bakarrik gorde.

<sup>4</sup> Policarpo de Iráizoz, Georges Lacombe, Gerhard Bähr, Nikolas Ormaetxea «Orixe» eta Odon Apraiz izan ziren nagusiak, nahiz eta horiek laguntzaile ere izan. 1923ko martxorako amaitua zegoen bilketa lana; izan ere, eskerrak ematen dizkio Eusebio Etxalarkoari, 100 pezetako esker onarekin batera.

tasunerako bidean hartu beharreko erabakietarako mesedegarri izan zedin egindako lana da, ahozko lekukotasun horietan oinarrituta, euskararen batasunerako baliabideak handitzekoa. Arlo teknikoan Azkueren lanean informazioa lortzeko prozedura dialektologia-inkesten antzekoa izanagatik ere, helburua ez da inondik ere dialektologia-inkestek izan ohi dutena. Villasante izan zen (Iker 3, 1984: 8) helburuen gaineko argibideak eman zituenetako bat: Azkuek datu zehatz eta fidagarrien corpus bat izan nahi zuen, euskara literarioaren edo euskararen batasunaren ordua heltzen zenerako, lagungarria gerta zedin, batez ere, erabakiak hartzeko orduan. Bigarren arrazoiak informazioa erakusteko moduarekin du harremana. Bildutako erantzunetako zenbait *Euskera* aldizkarian argitaratu ziren oso modu laburtuan. Beraz, hizkuntza-atlasgintzari zuzenean eragiterik ez zuen lortu eta aztertzekoa izango litzateke, halaber, ea euskararen batasuneranzko bidean azpimarratu beharreko lana den, materiala argitaratzeko moduari hertsiki lotutakoa baita material horrek izan ohi duen zabalkundea (Mitxelena 1964: 471).

Esan bezala, *Erizkizundi Irukoitza* euskarazko hizkuntza-atlasaren aurrekarizat hartu izan da, inkestagile batzuk, berriemaile batzuk eta euskararen ikerketan oinarritzen zen galde-sorta bat tartean zeudelako; ez besterik. Lehenengo eta behin, «Euskaltzainen urgazle ta lankideai» atalean inkestagile egokienaren profila diseinatzen du Azkuek (1921: 10).

12. Gure lankide eta urgazleak oar bezate, eritziak biltzeko arazo onek erraz egitekoa irudiarren, edozein eztela onetarako gai. Beren egikizun au ezpeziote beraz normairi ardurapetu. Bilakizun auek biribilatzen abil-arin bat as baledi, gerta liteke Mexicoar indio batzuk elizgizon zenbait emandako erantzun au norbaitek ematea.

–¿Cuántos años hace que no te has confesado?

–Padresito, tres... seis... dose, los que quiera su mersé.

Eskua ala eskue ala eskuu galdetzean, «lo que quiera su mersé» edo onelako zeren bat eztezatela erantzun.

Ez, beraz, urren ageri denari arazo au eman.

13. Lankiderik aski izan ezik, gure arteko norbaitzuk (Yaunak esango digu nola) iker ta aztertu bear izango dituzte gainerako zokomoko guztiak.

Berriemailearen profilari dagokionez, labur eta argi ematen ditu Azkuek zenbait ezaugarri:

1.<sup>a</sup> Erizletzat, berdinean, yaiogutik (sorterritik) gutxitan irten dena obetsia izan bite. Irakurtzen eztakiena bada, obe.

Galde-sorta garatzerakoan berriemaileak emandakoa zalantzarria izan zitekeen kasuetan nola jokatu erakusten du Azkuek. Galde-sorta aurrera eramateko beharrezko diren jarraibideak ere azaltzen ditu, inkesta-metodologian ere geldialdia eginez: *Erizleak nola edo ala erderaz naiz frantsesez izketan badakite, noizbait egokiago izan diteke euskeraz galdeak ez egitea*. Inkestagi-leak berriemailearengan izan dezakeen eragina ere azpimarratzen du Azkuek: *Onegatik erizkizunpeko itza batzuri erderaz, besteai frantsesez galde ezaiozute. Euskeraz baizik ezpadakite, orduan galdeak zearka-mearka egin, zuen itzetan beren erantzumena sartu gabe* (Azkue 1921: 6-13).

EHHARI dagokionez, zazpi laguneko taldea ibili zen 145 herri edo auzotan barrena grabazioak egiten, Azkuek zioen moduan, zeharka-meharka galderak eginez. Galde-sorta aurrera eramateko, Azkuek inkestagile-lanak egin behar zituztenei agindu ez bezala, EHHAn galderak euskaraz egin behar ziren. Morfologiari buruzko galderetan eta joskerari buruzkoetan bakarrik erabili zen gatzelania eta frantsesa. Galdera horiei erantzunak eman zizkieten berriemaileak gutxi gorabehera hirurogeita bost urtetik gorako gizon-emakumeak izan ziren, galde-sorta garatzen den herrian jaio eta bizitakoak.

Esandakoak esanda ere, *Erizkizundi Irukoitzak* hizkuntza-atlas batekin aipatutako bat-etortzeak eta desberdintasun txikiak dituen arren, azaldu bezala, desberdintasun nagusia helburuan bertan hasten da: materialak ikusita, handiagoa da bakoitzaren helburuek bien artean eragindako desberdintasuna, metodologia antzekoak bien artean eragindako antzekotasuna baino.

*Erizkizundi Irukoitzak* erakusten du Azkuerentzat erdigunean ez zeudela euskalkiak, hizkuntza literarioa baino: hizkuntza estandar bat sortzea eta indartzea lehenesten zuen, euskararen biziraupena bermatu ahal izateko. Horri lotzen zaio Azkuek erdialdeko euskalkiaren alde egiten duen apustua, ez bere edertasunean oinarrituta, ezpada euskaldunen arteko elkar-uler-tzean eta euskaldun bihurtzeko gogoia zuen jendearen ikasketa-prozesua arintzean (Kintana 2015: 209).



## 2. Hizkuntza-atlasgintza: helburuak eta helburuak ez direnak

Ezinbestekoa da 80ko hamarkadara arte zain egotea euskarazko hizkuntza-atlas bat izatearen asmoaren egiazko garapenerako. Orduan hasi zen eremu dialektal handien interpretazioan lagungarri den materialaren garapena, kartografikoki irudikatutako kontzeptu baten bidez irakurlea hizkuntzaren osotasuna erakusteari erreparatzen diona (Sanchis Guarner 1953: 26).

Hizkuntza-atlasa hiztegi dialektal handia dela esan zuen S. Popek (1950: 17), baina hori baino gehiago da edo, bestela esanda, ez da hori bakarrik; izan ere, euskarazko hizkuntza-atlasean hainbat dira hiztegi batean agertuko ez liratekeen galderak (jokatzeko morfologiak 595 galdera ditu, joskerak 62 joskera-fonetikak 37) eta galderetatik harago ere desberdinak dira galderen berri emateko baliatzen diren bideak. Popek esandakoaren bidetik, adierazpen egonkorrak geografia-ordenaren arabera kokatzen eta antolatzen dituen da hizkuntza-atlasa. Berriz ere lexikoaren ikuspegiari bakarrik begiratuta, lexikoaren inbentario osatugabea dela esan daiteke, hitz-kopuru mugatua duena eta kontu handiz aukeratua. Aukeraketa horri esker jakin daiteke zein diren galdera batean jasotako erantzunen ezaugarri oinarrizkoak, geografia-banaketa eta bizitasuna.

Coseriuk (1977: 103) hizkuntza-geografia definitzeko duen modua ere oso lagungarria da, hizkuntza-atlasa zertan datzan ikusteko: metodo dialektal eta konparatiboa da, maparen gainean hizkuntza-forma ugari (fonikoak, lexikoak edo gramatikari dagozkionak) jartzen dituen, inkesta zuzen eta bakarraren bidez egiaztatutakoa eremu jakin bateko puntuen sare batean. Geografia-eremu batean formek duten banaketa kontuan hartzen du eta lurralde jakin baten hizkuntza-fenomeno nagusiak azaltzen dira.

Aitzitik, hizkuntza-atlasen helburu nagusien eta ezaugarrien artean ez da inondik ere ageri hizkuntza literarioaren gaineko aipamenik. Azken batean, hizkuntza-atlasen helburua hizkuntza-ezaugarri batek edo, lexikoari dagokionez, kontzeptu jakin batek aldeztetik hautatutako geografia-eremuan duen izendapen-aukeren eta izendapenen hedaduraren berri ematea da, besteak beste. Gaur egun euskarazko hizkuntza-atlasean

euskara literarioa mapan ageri den aldaeren aniztasunaren berri emateko baliabidea, bitartekoa, da. Hala eta guztiz ere, euskarazko hizkuntza-atlasaren helburuetan euskara literarioaren gaineko aipamenik ez izanagatik ere, euskara literarioaren edo batuaren aberastasuna handitzeko edo aberastasuna nabarmentzeko baliabideen artean izan beharko litzateke euskarazko hizkuntza-atlasa. Adierazi bezala, hori ez da hizkuntza-atlasaren helburua izan behar. Hala eta guztiz ere, euskara literarioaren edo batuaren aberastasuna, zehaztasuna eta erabilgarritasuna bermatu gura duten materialen helburuen artean –hala nagusiak, nola berariazkoak– izan beharko litzateke ahozko corpus erraldoi honetan bildutakoa nolabait baliatzea.

Bestalde, behin baino gehiagotan adierazi izan zaio EHHAREN lantaldeari, ez zuzenean, bai zeharka, komenigarria izango litzatekeela galderaren izena agertzen den gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko formaren ondoan euskara batuari dagokiona ere jartzea. Ez da samurra jakiten zehazki zertan oinarritzen den iradokizuna edo zein izan beharko litzatekeen izenburuan agertu beharreko euskara batuari dagokion aldaera; hots, bildutako aldaera guztien artetik zein izan litekeen lehentasunezkoetatik lehentasunezkoena. Azken batean, lehentasunaren arabera egin beharreko zerbait bada, ezinbestean jakin behar da zein izango den aldaera jakin bat lehenes-teko arrazoia, nahitaez ezer nabarmentzen hasi orduko.



*Azkar, bizkor, segitian, arin, laster, presaka, segidan...* Zeinen alde jokatu, beraz? Galderaren izenburua dagoen-dagoenean uztea da onena, hizkuntza-atlasaren helburuen artean ez baitago hizkuntza literarioan erabili ohi

den aldaera zein den adieraztea; are gutxiago, bat lehenestea. Horretarako diseinatu zena *Erizkizundi Irukoitza* izan zen, diseinutik helburua betetzera tarte handi samarra izanagatik ere. *EHH*Aren diseinu-fasetik gaur egunera artekoan ez da sekula euskara batuaren gaineko ezer helburuen artean jarri. Bestalde, *EHH*Aren kasuan, zergatik superlemetako bat nabarmendu eta galderaren izenburura eramane euskara batuaren ustezko mesedetan, baldin eta zuzenean euskara batura bideratutako lana ez baldin bada? *EHH*Aren galdera honetan agertzen diren superlema ia guztiek, dauden-daudenean, badute tokia *Euskaltzaindiaren Hiztegian*:

**azkar<sup>2</sup>**

---

4 adb. Laster, arin. *Tximista bezain azkar joan. Azkar etor zaitez. Azkar-azkar jaitsi zen asto gainetik.*

**arin**

---

5 adb. Laster. *Arin ibili. Ezpainak arin higituz. Goizean, jaikitzen zaren bezain arin. Arinegi ahaztu. Baserrira arin-arin doa nagusia.*

**agudo**

---

1 adb. *Heg. Laster, arin. Goazen etxera, eta agudo. Agudo atera nuen gorderik neukana. Agudo zabaldu ziren munduan haien ideiak. Ahitu egin omen da agertu bezain agudo liburutxo bikain hau.*

**bizkor**

---

2 adj. Arina, lasterra. *Zaldia bezain bizkorra.*

**zalu**

---

1 adj. *Ipar. Arina, lasterra. Ik. zoli 3. Haizea bezain zalua badarama lasterra. Orduan zalu ginen, orain mantso gabiltza. Begiak argi, zangoak zalu. Mihia luze eta zalu, ezin egon mintzatu gabe. Brinko zalu batez. Orkatz zalua.*

**laster**

---

7 adb. Lastertasunez. Ik. **lasterka**. *Laster dabilen zaldia. Laster esaten da hori. Etorri bezain laster joaten dena. Laster, laster! Lasterrago baitabil beti gogoia begia baino. Lasterregi haserretu naiz. Ahalik lasterrena handik alde egiteko. Hainbat lasterren ikus ditzagun.*

**presaka**

adb. Presaz. *Presaka* egin behar izan zuen, eskatu zitzaiona. Irakurle zuhurrak gogoan eduki beza, *presaka* eta *muturka*, itobeharrez jaiok *dirrela* hemen agertzen diren zenbait izkribu. || *Presakaegi* irakurri. *Nahi genuen baino presakago hasi da ibiltzen jendea.*

**segidan**

3 adb. Berehala. Ik. **segitan**. *Bai, eta segidan nahi baduzu.*

**bertan**

3 adb. Berehala, bertatik. *Uztaroa bertan baita. Ikusi eta bertan hil zen.*


Aurrekoa adibide bat baino ez da, behin galderaren elaborazioa amaituta ikus daitekeenarena. Aipatutako superlemetatik gehientsuenak *Euskaltzaindiaren Hiztegian* azaltzeak are zailago egiten du eskakizuna betetzea; alegia, euskara batuan kontzeptu hori izendatzeko erabiltzen den formatatik bat lehenestea, gaztelaniaren, frantsesaren eta ingelesaren formen alboan ager dadin. *EHHA* euskara literarioaren aberastasuna nabarmentzeko edo, posible den kasuetan, aberastasuna handitzeko baliabide izan daitekeela esateak ikusteko gutxi du *EHHA*ren kontzeptuaren izenburuan forma bat lehenestearekin. Hori egingo balitz, formatako bat lehenesteaz gain, gaine-rakoak bigarren mailakotzat hartzeko joera izango litzateke; azken batean, baztertzekoa.

Bestalde, mapak izan ohi dira hizkuntza-atlasaren lehenengo eta azkeneko emaitza; izan ere, lehenengotzat har daitezke, informazioa nagusiki mapa baten bidez helaraztea delako *EHHA*ren xedea; azkenekotzat har daiteke, era berean, mapak egitera heldu aurretik informazioaren elaborazioa egin behar baita.

Hizkuntza-atlasetan bildutako informazioa mapan islatzeko moduak galdera batetik bestera ugari izan daitezke, baina mapak egiteko moduetan aldea ez da horrenbestekoa. Horrekin ez zaio erreferentzia egin nahi lematizatzeako atlas bakoitzak izan dezakeen baliabideari, ezpada lematizatzeako prozedurari berari. Galdera batean jasotako erantzun guztien zerrenda ortografikoki idatzirik ageri da *EHHA*ren lematizazioaren lehen urratsean eta, hizkuntza-irizpideetan bakarrik oinarrituta, erantzun guztiak multzokatu

beharra dago, lematizazioa bere azken urratsera hel dadin; hau da, maparen legenda osatzeko erantzun guztiak barneratzen dituzten legendako osagaiak, superlemak, sor daitezten.


EHHAK dituen 2.857 galderak (lexikoak 2.163 galdera, morfologiak 595, joskerak 62 eta joskera-fonetikak 37) salbuespenak salbuespen, Euskal Herrian barrena aukeratutako 145 herrietan (Bizkaian 36, Gipuzkoan 36, Araban 1, Nafarroan 27, Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18, Zuberoan 11 eta muga horretatik kanpokoa, baina gertukoa den Eskiula) egin dira. Hala ere, badirenez zenbait tokitan tradiziozkoak ez diren alor batzuei buruzko galderak, horiek dira, hain zuzen ere, herri guztietan, hau da, 145 herrietan, galdetu ez direnak. Itsasoari eta bertako bizidunei eta, hobeto esanda, bizi-moduari, dagozkion galderetako zenbait dira herri guztietan galdetu ez direnetakoak.



Galdera horretan ikusten den legez, itsasoaren mugan dauden herrietan baino ez da galdetu itsas animalia horren izena. Aitzitik, beste gai batzuen kasuan, sagardogintzan, adibidez, nahiz eta toki batzuetan bakarrik egiten den, gutxi dira galderarik jaso ez duten herriak, baina ez dira asko erantzuna erakusteko moduan direnak. Semantika-eremu batek eskualde jakin batean izan dezakeen pisuaren edo eraginaren arabera izan ohi da gai horretako galderak erantzuteko aukera. I. Caminok esandakoaren bidetik (2009: 281), ALPIn ere ez da galde-sorta osoa alde aurretik zedarritutako eremu osoan aplikatu. Herri bakoitzaren geografia-baldintzak eta orografia-baldintzak oso kontuan hartu behar dira, horren arabera erabaki baitai-

teke zer galdetu eta zer non galdetu, eta zer ez galdetu eta zer non ez galde-  
tu. Galdetzen denean beti izaten da erantzunik ez jasotzeko arriskua, baina  
galdetzen ez denean hartzen da arriskurik handiena, ez-jakintzat hartzen  
baita beharbada jakin daitekeena. Dena dela, aurreko eta osteko adibideko  
emaitzak ikusita, ulergarria izan beharko litzateke galde-sorta guztia 145  
herrietan aplikatu ez izana.

Bigarren adibidean ikus daitekeenez, jokabide desberdina da beste gai eta  
galdera batzuetan; izan ere, galdera gehienak *EHHA* arako aukeratutako 145  
herrietan garatu dira. Nahiz eta sagardogintza ez landu *EHHA* n azaltzen  
diren herri guztietan, 48. gaiko ('la sidra / le cidre') 48040 'torno de machacar /  
tour à piler' galdera *EHHA* n hautatu diren herri ia guztietan egin da.



Herri edo eskualde jakin batek izan ditzakeen geografia-baldintzak, oro-  
grafia-baldintzak eta ohitura apartekoak gorabehera, asko dira galderarik  
galdera itaundutako kontzeptuari izendapena emateko moduan izan diren  
berriemaileak. Asko dira, era berean, kontzeptu bakoitzari erantzun bat bai-  
no gehiago emateko moduan izan direnak; beraz, ez da gutxitan gertatu izan  
galdera bakoitzeko berrehun erantzun inguru biltzea. Berrehun erantzun  
edo, hobeto esanda, berrehun prelema horiek dira euskarazko hizkuntza-  
atlasaren elaboraziorako hautagai direnak.

Ezer baino lehen informazioa antolatu, multzokatu eta elaboratu egin  
behar da, maparen legendaren oinarri izango diren superlemak sortu ahal  
izateko. *EHHA* lantzeko eta garatzeko sortutako informatika-programaren  
baldintza da gehienez 16 superlema izatea, esan bezala, legendan ager dai-  
tezkeen 16 multzo sortzea. Era berean, gerta daiteke eta inoiz gertatzen da

aipatutako mapa horretan atalen bat behar den beste ez garatzea, gehienezko 16 superlemen zurruntasun horren eraginez, lematizazioa egiterakoan erabaki behar izan delako, esaterako, morfema bat izatearen edo ez izatearen arabera multzokatu informazioa ala hots bat izatearen edo ez izatearen arabera egingo den, bestela. Kasu horietarako, *EHH*Aren lan-tresnak bigarren mapa bat egiteko aukera ematen du, argitalpenean tamainaz askoz txikiagoa dena, baina hori egin ahal izateko, mapa nagusia egiteko baino askoz abstrakzio handiagoa eskatzen duena: 6 superlema izan daitezke gehienez; hots, seitan bana daiteke asko jota mapa txiki horren legenda.

Nola mapa handian, hala txikian, lematizazioan bildutako erantzun guztien zerrenda agertzen denean ez da jakiten zein den galdera zuzenen bidez jasotakoa edo zeharkako galderen bidez, zehatzago esateko, hitz baten proposamenen bidez, bildutakoa. Halaber, lematizazio-prozesuan galdera elaboratzen duenak ezin du jakin, garai batean ez bezala, erantzun bat, izan berriemaileak bere kabuz emandakoa, izan hitz baten proposamenaren ondoren jasotakoa, lehenengo erantzuna, bigarrena, hirugarrena ala hortik gorakoa den.

Horrenbestez, galderan jasotako 200 prelemetatik<sup>5</sup> lemetarako jauzia egin beharra dago lehendabizi eta lemetatik superlemetarakoa, ondoren. Bigarren jauzi horretan erabaki behar da zein hizkuntza-irizpideren arabera edo zein hizkuntza-alderdiren arabera garatu behar den galdera horren lematizazioa. Etimologia izan daiteke, esate baterako, lematizaziorako irizpidea. Morfema bat azaltzea edo ez azaltzea izan daiteke, esaterako, bigarren irizpidea eta morfema esaten denean, hotsa ere esan daiteke eta, hotsa esaten denean, fonologia-araua esateko modua ere badago.

Bildutako prelema guztiakin ikertzaileak egiten duen lanketaren araberrakoa da lematizazioa eta mapa. Beraz, erantzunen tipologizazioaren oinarrian arrazoi subjektiboak daudela esan daiteke, nahiz eta guztiaren oina-

<sup>5</sup> Prelemetan azaltzen direnak dira galdera jakin batean ahoskatu eta onartutako erantzun guztiak. Horiek lema bihurtzeko, nolabaiteko orrazketa bat egin behar izaten da. Azkenik, bildutako lemekin, kopuruz prelemen eta superlemen artekoak direnekin, superlemak egituratzen eta egiten dira, esan bezala, ikertzaileak nabarmendutako hizkuntza-ezaugarriren baten arabera. Azken horiek, superlemak, dira galderaren legendan agertu ohi direnak.

rrian sailkapen bat egon. Horregatik erabili izan da *elaborazio* hitza, *interpretazio* hitzaren kaltetan. Interpretazioa izango litzateke hitz, morfema edo hizkuntza-ezaugarri jakin baten izatearen arrazoia galdetzeko bidea. EHHAn ez da herri jakin batean hitz baten agerreraren arrazoiak galdetzen; hizkuntza-gertaera baino ez da jasotzen (Aurrekoetxea: 2004, 9-10). Hala eta guztiz ere, zilegitasun ia erabatekoa ematen zaio berriemailearen eskutik bildutako informazioari, ez informazioa bilduta hitz bat agertu izanaren arrazoia jakiteko, ezpada hitz jakin baten agerrera guztiz arrazoizkoa dela ikusteko.

Hizkuntza-gertaera hori jasotzen denean eta jasotakoa maparatzeko helburuarekin nolabait multzokatu behar denean, edozein hizkuntza-ezaugarri tartean izanik esan daiteke, arestikora bueltatuta, euskara literariotik hurbilago dagoen lema izatea ez dela inongo irizpidea superlema baten forma erabakitzerakoan. Superlema bihurtzeko dauden lemei dagokienez, erabakigarriagoa da lema horren maiztasuna, lema horrek forma literarioarekin duen distantzia gorabehera.

Informazioa lematizatzerako orduan izaten da, baina, berriemaileak emandako informazioaren zilegitasuna berresteko aukera: herri-jakintzatik etorritako informazioaren antolaketa nahitaezkoa da, lematizazio-prozesua burutzeko erantzun jakin bat agertu izanaren zergatiaz hausnartu gabe, baina erantzun jakin hori agertu izanari zilegitasuna emanda. Izan ere, herri-kulturarekin izan dezakeen lotura izan daiteke kasu askotan erantzun jakin hori agertu izanaren arrazoia.

### 3. Hizkuntza-atlasaren eta herri-kulturaren arteko harremana

Hertsiki lotutakoak dira dialektologia eta herri-kultura; beraz, hizkuntza-atlasak eta herri-kultura ezin urruti ibili. Hizkuntza-atlasek herri-kulturarekin duten harremanaren puntu sendoena galde-sorta bera da, hizkuntza-atlasaren oinarrian dagoena, hortaz. Zer galdetu erabakitzerakoan, hizkuntza, kasu honetan, euskara, bere kultura-eremuan murgiltzea komeni da, horrela eginda bakarrik lor baitaiteke, esaterako, erreka arrainen



izendapena eta informazioa eskuratzea, gurdiarena, goldearena, gobadarena, artilearena, lihoarena edo, zer esanik ez, euskaraz hitz egiten zenean garai batean jarri ohi ziren zigorrena, zenbait aipatzearren. Nahitaezkoa da horretarako inkestagileak galdetzen duena izendatzeko izan daitezkeen moduez gain –ez guztiak, halaberharrez–, balizko izendapen horri lotutako objektuaren erabilera, ohituraren funtsa edo sentimenduaren ñabardura ere ezagutzea. Orduan jarri beharko lirateke elkarlanean etnografoa eta dialektologoa (García Mouton, 1987b: 66). Besteak beste, epeen edo denbora igarotzearen aitzakian, elkarlana ez da beti behar bezain egingarria eta indartsua izaten, eta arlo horietan adituak diren lagunak biltzea sarritan nekeza izan daiteke. Arlo bietan adituak izateko asmoz –hori izango litzateke aproposena–, adar bietako aditu bana batzea baino samurragoa izan daiteke etnografotik ere izan dezakeen dialektologoa bilatzea edo, haatik, dialektologotik ere izan dezakeen etnografoa.

Galde-sortari erreparatuta, hizkuntza-atlasetan erabiltzen dena galde-sorta itxia da. Itxia izateak ez du esan nahi berriemaileak ez duenik galdetzen zaion izendapenetik kanpo ezer gehitzeko aukerarik; ezta antzik ere. I. Caminok (2009: 275) *datu-bilduma hertsia* aipatzen du, *datu-bilduma librearekin* batera edo aurrez aurre. Galderak egin aurretik, galde-sorta goitik behera finkatuta izan behar da, itxiaren aldeko metodologia erabiltzeko asmoa dagoenean. Librea denean, aldiz, asmoak asmo, ez dago zertan ibili galde-sorta finko baten atzetik, elkarrizketa libreari eskerrak jasotzen baita interesgarria izan daitezkeen informazioa modurik naturalenean eta testuingururik ohikoenean.

*EHHA* nonbait kokatu behar izatekotan, itxien artean kokatu beharko litzateke. Itxiari eskerrak lortu da galde-sortan galdetutakoa zehatz biltzea, baina libre jokatzeari eskerrak lortutakoa ere bada itxiari esker bildutakoa testuinguru aproposalan kokatzea eta horren gaineko informazio erantsia izatea. 2.857 galdera egiteko, aurretiaz galde-sorta zehaztuta eraman ezik, amaitu ezinezko zeregina izango litzateke, izan dena baino amaiezinagoa, hartan ere.

Hizkuntza-atlasen galde-sorta itxi horri esker jasotako erantzunez gain, hainbat eta hainbat ohar jasotzen dira galde-sorta itxiaren barnean izan

daitezkeen aukera edo pasarte libreetan. Orduan biltzen dira begitxindorra sortu izanaren inguruko sineskerak eta osatzeko moduei buruzko oharrak, bataiatu gabeko haur bat hiltzerakoan lurperatzeari buruzkoak edo, lagin txiki bat aipatzearren, oiloek arrautzak erruteko moduaren eta egunaren momentuaren gaineko azalpenak. Azalpenok, oro har, berbaz, kontu-kontari, emandakoak dira, baina badira kantuz emandakoak edo kantuz hornitutakoak ere.

Hizkuntza-atlasak eta horien galde-sortak aipatzen direnean, monografiaren aipamena gertukoa izaten da sarritan, bien arteko antzekotasuna ez eze, bien arteko desberdintasunak aipatzeko. Monografietan hizkuntza-atlasetan baino sakonago eta libreago jokatzeko aukera dago. Hizkuntza-atlasetan bizkor eta azal samarretik ibili behar da, nahiz eta hori ez den nahasi behar inkestagileak inkesta aurretiko lana edo galde-sortaren garapena bera azaletik egitearekin. *EHHA*n oso handia da, berbarako, bai hasierako galdere-tan, bai inkesta aurrera joan ahala egindakoetan, herri bakoitzean inkestagileak berriemaileari zer proposatu jakiteko egindako lana<sup>6</sup>.

Galde-sortaren edukiari dagokionez, behin baino gehiagotan aipatzen da lexikoaren alderanzko desoreka. Hizkuntza-alderdi guztiek nekez izan dezakete toki bera hizkuntza-atlasetan. Hortaz, nahiz eta lexikoa izan garaian garaiko bizimoduaren berri emateko baliabide aproposenetakoa, aipatu izan da (Camino, 2009: 280) dialektologia makurtuegi egon izan dela etnografiaren aurrean.

*EHHA*ren kasuan ere gehiena lexikoari dagokiona izanagatik ere, dena ez dagokio horri. Hala ere, lexikoari dagokion galde-sortaren parte semantikoki, ez ortografikoki, antolatua da. Arlo semantikoaren arabera egindako bereizketa hau ohikoa da hizkuntza-atlasetan eta ohikoak dira, ondorioz, *EHHA*ren galderaren alboan beste hizkuntza-atlas batzuei egiten zaizkien erreferentziak, semantikoki oinarritutako harremanak dituztenak, honenbestez. 37010 ‘yugo / joug / yoke’ galderan *ALEANR* I, 118 galderari egiten zaio erreferentzia eta 08250 ‘arco iris / arc-en-ciel / rainbow’ galderan *ALG*:

<sup>6</sup> Inkestak aurrera egin ahala, askoz gehiago dira hitz proposatuak; izan ere, berriemaileek emandako erantzunetatik prestatutakoak dira proposamenak.

822; *ALEANR*: X, 1336; *ALE I*, 6-9 galderari. Horrenbestez, galdera batzuk beste hizkuntza-atlas batzuetakoetan oinarritzeak ere arrazoi semantikoak ditu.

Hizkuntza-atlas guztiak, lexikoaren ikuspuntutik bada ere, ez dira semantikoki ordenatuak. *ALF* lehenengo hizkuntza-atlasetakoa izatea eta *Wörter und Sachen* mugimenduaren ostekoa ez izatea nahiko arrazoi izan daiteke hitzak bestelako ordena baten arabera antolatzeke; alegia, ordena alfabetikoaren alde jokatzeko hitzak erakusterakoan<sup>7</sup>. *Atlas Lingüístic de Catalunya* (*ALC*) ere *ALF*en bidetik joan zen eta, nahiz eta 1923an argitaratu, ez zioten gehiegi begiratu herri-kulturari. García Moutonek esan bezala, A. Grierak hizkuntza-atlasa ez zen beste lan batzuetan ondo ederto aplikatua zuen metodologia berria, baina, ez zuen erabili, ordea, Kataluniako hizkuntza-atlaserako.

*Wörter und Sachen* mugimenduaren aurretik hasi zen hizkuntzaren eta kultura tradizionalaren arteko lotura. Dialektoen ikerketa eta etimologia lotu zituen Turgotek *Enciclopedia* XVIII. mendearen erdialdean eta Frantziako Iraultzan dialektoak deuseztatzeko ahalegina egin zen. Era horretako ahaleginek erantzuna ere bizkor izan ohi dutenez, Napoleonen eskutik heldu zen korrante nazionalista, arrazista eta populista, herria hartzen zuena kultura tradizionalaren gordailutzat. Kontzientzia diferentziala egonkortzeko oinarri-oinarrizkoak geratu ziren herri-kulturaren balorazioa eta nazionalismoaren goieneko unea (García Mouton, 1987b: 54).

Dialektoak serio hartzen hasi ziren garai horretan, dialektoak ikertu nahi zituenak nahitaezkoa zuen dialektoen bidez izendatutako objektuetara jotzea; alegia, izendatu nahi zena ezagutzea. Objektuaren eta izendapenaren arteko zubia eraikitzeke sortu zen 1909 inguruan *Wörter und Sachen* aldizkaria R. Meringer eta W. Meyerren eskutik, besteak beste. Aldarrikapen-testuan adierazi zuten, serioago heldu behar zitzaion hitzen eta gauzen arteko loturari edo harremanari. Mugimendutik oso urruti izan ez zen beste bat H. Schuchardt izan zen, baina berak lehenago besteek formulatu-

<sup>7</sup> *Atlas linguistique et ethnographique de l'Italie et de la Suisse méridional* (*AIS*) izan zen hitzak eta objektuak lotzen zituen mugimenduari eskerrak semantikoki antolatutako lehen hizkuntza-atlasa.

takoaz hausnartu eta mugimenduaren izenaren hitzen hurrenkera aldatu duen: *Sachen und Wörter*. Bere iritziz, lehenengo objektuak daude, eta ondoren etor daitezke eta etorri ohi dira objektu horiek izendatzeko moduak. Dependentsia hitzak dauka objektuarekiko eta ez alderantziz.

Bestalde, hitzen jatorri diren objektuen artean bereizketa egin beharra dago: zehatzak, alde batetik; abstraktuak, bestetik. Kopuruari dagokionez, *EHHA*ren galde-sortan askoz gehiago dira zehatzen artekoak abstraktuen artekoak baino; hots, zatia gehiago dira objektuei lotutakoak ideiei edo sentimenduei lotutakoak baino. Abstraktuen artean 69. gaia (X. liburukia) da nabarmentzekoa, kualitateak eta bizioak azaltzen dituen (*Euskera XXXVIII*: 575): 69010 ‘costumbre / habitude’, 69020 ‘amor / amour’, 69030 ‘valentía / courage’, 69040 ‘esperanza / espérance’, 69050 ‘compasión / pitié’, 69060 ‘deseo / envie’ eta 69070 ‘envidia / jalousie’, zenbait aipatzearren. Gai horretakoak dira, era berean, pertsonaren izaeraren gaineko beste galdera batzuk ere: 69080 ‘holgazán / fainéant’, 69090 ‘desgraciado / malheureux’, 69100 ‘fuerte / fort’, 69110 ‘recto / droit’ eta, besteak beste, 69120 ‘carácter / caractère’. 69. gaia abstraktua da bere osotasunean, baina badira beste gai batzuk zehatzagoak, nolabait esateko objektuei lotuagoak, izan arren, galdera abstraktuak tartekatzen dituztenak. 66. gaian (‘la niñez / l’enfance’) 66150 ‘tímido / timide’ galdera dago; baita 66020 ‘bautismo / baptême’ galdera ere.

Lexikoari bakarrik erreparatuta, bi multzotan sartzekoak dira *EHHA*n, beste hizkuntza-atlas gehientsuenetan bezalaxe, lexikoari dagozkion 2.163 galderak ere: lehenengoa da landa-eremuetako lexiko tradizionalarekin harremanetan dagoena eta bigarrena, aldiz, oinarritzko lexiko-gaiei lotutakoa (Julià 2007: 93-95). Lehenengo hizkuntza-atlasak egiten hasi zirenean, bazegoen tokian tokiko ahozko hizkuntzan bakarrik biltzen ziren eta galtzeko zorian zeuden formak jasotzeko ahalegin apartekoa egiteko gogoia eta, eremu horretan zerbaitek tokia izatekotan, landaguneetako lexiko tradizionalak izan behar zuen. Oinarritzko lexikoari buruzko galderak aipatzen direnean, *EHHA*ren galde-sorta ikusita, adibidez, erraz igar daiteke zuzen-zuzenean zeri egiten zaion erreferentzia. Hizkuntza batetik bestera joanda ere badira eremu semantiko batzuk errepikatuko direnak, hots, komunak direnak edo, hobeto esanda, hizkuntza guztietan azalduko direnak.

Landa-eremuetako tradiziozko lexikoan sartuko lirateke, zenbait aipatzearen, *EHHA*ren galde-sortatik hartutako gai hauek: 33. gaia, teilatuari eta oholari buruzkoa; 34. gaia, etxearen parteei lotutakoa; 36. gaia, ezkaratzeko tresneriaren gainekoa; 37. gaia, gurdia aipatzen duena eta 48. gaia, sagardoari dagokiona. Oinarrizko lexiko-gaien artean sartuko lirateke, beste zenbaiten artean: 8. gaia, eguraldiari buruzko galderak biltzen dituena, 10. gaia, denboraren zatiketaz ari dena, 11. gaia, egunari buruzkoa, 58. gaia, giza gorputza ardatz duena eta 73. gaia, heriotzaren gainekoa.

Hizkuntza-atlasetan garai bateko objektuen izendapenak jasotzeko egindako ahalegina oso handia da. Handia da, halaber, izendatutako objektuari buruzko ezagutza izateko egindakoa. Ia bost mila ordu grabatu dituen *EHHA* bakarrik gaur egun garatzen ari den hizkuntza-atlaserako baliatzea zuribide handirik gabeko ahalegina izango litzateke. Hizkuntza-atlasak, are gehiago galde-sorta hizkuntza-alderdi desberdinetara bideratuta dutenak, iturri agorrezina izan beharko lirateke hizkuntzaren garai bateko lekukotasunen berri izateko, edozein izanik une jakin batean interesgarri gerta daitekeen hizkuntza-alderdia eta ez hizkuntzarena bakarrik. Azterketa lexiko-semantikoa egitea, esaterako, hizkuntza-atlasen bidea onomasiologikoa den neurrian, izendapenaren eta edukiaren arteko harremana zehazteko aukeretako bat izan daiteke. Garatek (1933) ahalegina egin zuen euskarazko familia-harremanen izendapenaren etimologiaren gaineko zertzeladak azaltzeko. Bährrek (1935) batez ere familia-izenak aipatu zituen. Corominasek (1970) lau formaren etimologia-azalpena eman zuen: *alargun*, *ahizpa*, *agure* eta *guraso*.

Familia-harremanen izendapenari dagokionez, behin baino gehiagotan egin izan da euskararen eremutik kanpo ere (lehenengoetakoak: Brown 1976; Andersen 1978; Brown eta Witkowski 1981) horren gaineko azterketa. Hortaz, aproposa izan daiteke gai horri buruzko galderak ikuspuntu semasiologikotik aztertzea. Horrela ikusi ahal izango da gorputz-atalen izendapenak semantika-eremu berean nola erabiltzen diren eta gorputz-atalen izendapenek beste semantika-eremu batzuei nola eragiten dieten. Lehenengo eta behin, hizkuntza-atlasen ohiko bidetik, onomasiologikotik, 'El cuerpo humano: la cabeza / le corps humain: la tête' (58. gaia) eta 'El tronco, las extremidades / le tronc et les membres' (59. gaia) alorretan bildutako eran-

tzunak aztertuko dira, gero, bide semasiologikotik, gai horietan bildutako izendapenen kontzeptualizazioaren ondoriozko errealitate askotarikoak aztertzeke.

58010 ‘cabeza / tête’, 58160 ‘ojo / oeil’ eta 59480 ‘brazo / bras’ galderak EHHAn monolexematikoen artekoak dira; haatik, horiek dira gorputz-atalen eremutik atera eta giza gorputzaren galderen artetik emankorrenak, beste eremu semantiko batzuetako galderen izendapen nahikotan agertzen baitira. Honenbestez, bide onomasiologikoan oinarrituta, aniztasuna beste galdera batzuetan bezain handia ez den neurrian, interes txikiagokotzat hartzen dira galdera horiek. Halaber, hizkuntza-atlasetan askotariko izendapenak edo izendapen ugariak dituzten kontzeptuak gorputzaren barruko aldekoak izan ohi dira (hala nola: hezurak, organoak edo muskuluak), beste gorputz-atal handiago baten parte direnak, bestela. Horien artekoak dira, esate baterako, EHHAn atzamarrak izendatzeko jaso diren forma guztiak.

Era berean, antzeko adibidea da 58170 ‘niña del ojo / prunelle’ galderan azaltzen dena. Galdera horretan badira metafora-metonymian oinarritzen diren izendapenak. Begiaren atal hori izendatzeko, nolabaiteko konparazioa egiten da: beste eremu kontzeptual bateko errealitatea parez pare jartzen da edo begiaren parteen arteko metonymia-transferentzia bat egiten da, osterantzean. *Begiko sántu, sántu, begibóla, kaníka, begísantu, krístel, áingeru, begiko amabirjinie, begiko mariposie, níni* eta *beginíni* dira erantzunetako zenbait. Era berean, badira begiaren atal horren deskribapenean oinarritzen diren beste izendapen batzuk ere: *begíko bélltx, begibárru*.

Bide semasiologikoan murgilduta, begiaren atal txiki horrekin gertatzen den ez bezala, erantzun desberdinen kopuru handia ez dutenak dira (eskua, burua, besoa...), hain zuzen ere, ibilbide luzeena izaten dutenak; beste kontzeptu batzuen iturri izaten direnak (Julià, 2011: 54).

Ibilbide laburrena izan duten gorputz-atalen gaineko galderetan giza gorputzaren eremuan geratu dira emandako erantzunak. Beraz, eremu semantikoa errepikatu egiten da, nahiz eta eremu semantiko horretan galdera desberdina izan. Esate baterako, 58180 ‘ceja / sourcil’ galderan dauden superlema nagusiak *bekain, betule, betile, betazal, betarrots, begiezpál, bekosko* eta *zeja* dira. Galdera horretatik harago, beste galderaren batean agertu di-

renetakoak dira jasotako superlemetako zenbait: *betule* eta *betile* 58190 ‘pestaña / cil’ galderan ere ageri dira. *Betazal* 58190 ‘pestaña / cil’ eta 58200 ‘párpados / paupière’ galderetan azaltzen da. *Betarrots* 58020 ‘cara / visage’ galderan ere ageri da. *Begiezpal* 58200 ‘párpado / paupière’ galderan ere jaso da eta *bekozko* 58110 ‘frente / front’ galderan ere badago.

Ikus daiteke, honenbestez, semantika-eremu bereko kontzeptu desberdinak izendatzeko erabiltzen diren hitzak direla 58180 ‘ceja / sourcil’ galderan bildutakoak. Antzekoa gertatzen da 58190 ‘pestaña / cil’ eta 58200 ‘párpados / paupière’ galderetan. Lehenengoaren superlema nagusiak *pestaña*, *betill(e)*, *betule*, *begiko ile*, *begiko bilo*, *betazaleko bilo*, *betazal*, *betezpal* eta *begiko kalpar* dira. *Pestaña* 37080 ‘mosquero (red) / émouchette’ galderan ere jaso izanagatik, *betill(e)* eta *betule* 58180 ‘ceja / sourcil’ galderan ere jaso dira. *Betezpal* ‘párpado / paupière’ galderan ere bildu da. Bigarren galderaren, 58200 ‘párpados / paupière’ galderaren, superlema nagusiak honako hauek dira: *begiko azal*, *betazal*, *begiezpal*, *betezpal*, *be(g)itxapel*, *begikapela*, *begitapa*, *parpado*, *begigan(e)*, *begigain*, *begitela*, *pestañasal*, *begistalki* eta *begiko ttapal*. *Betazal* 58180 ‘ceja / sourcil’ eta 58190 ‘pestaña / cil’ galderan ere ageri da. *Begiezpal* eta *begigain* 58180 ‘ceja / sourcil’ galderan ere jaso dira.

Sailkapen lexiko-semantikoa hiru multzotan banatuta:

- a) Lehenengoan 58180 ‘ceja / sourcil’ galdera izan, 58190 ‘pestaña / cil’ izan edo 58200 ‘párpados / paupière’ galderan izan, gaztelaniatikoa maileguak azaltzen dira. 58180an *zeja* agertzen da; 58190an, *pestaña* eta 58200an *parpado*.
- b) Bigarren multzoan metafora-metonimiak dira tokia dutenak. Beti ez da erraza metafora-metoniaren artean bereizketa egitea; izan ere, askotan elkarren artean lotura estua duten eta aldi berean gertatzen diren prozesuen *continuum*tzat hartzen dira; ez dira kontzeptu zurrun eta isolatu bi, hortaz (Kövecses and Radden, 1998; Heine et al. 1991; Goossens, 2002; Peirsman and Geeraerts, 2006). Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, polisemia- eta semantika-aldaketak soluzio aipostzat hartzen dira, eta testuingurutik eta pragmatika-indartzetik abiatuta ondorioztatu behar da zer den adierazi nahi dena. 58180an *begiezpal* eta *betintza* azaltzen dira; 58190an *betezpal*, *be(g)itxapel*, *begi-*

*kapela, begitapa, begitela, begiestalki, begiko ttapal, betoskol* eta *begigane-ko kapa*; 58200 galderan *begiezpal, betezpal* eta *betisats* agertzen dira. Metafora-metonimian oinarritzen diren erantzunak ez dira kopuruari dagokionez oso emankorrak, ez galderan bertan, ez beste kontzeptu batzuen berri ematerakoan. Aipatutako metaforetako zenbait beste hizkuntza batzuetan ere errepikatzen dira. Gaztelaniaz: *cobertera del ojo, tapas del ojo* eta *tela del ojo*. Katalanez: *tapes de l'ull*. Galegoz: *capel, capela* eta *tapa do ollo*.

- c) Hirugarren multzoan sartuko lirateke izendapen deskribatzaileak: 58180an, *begigain, bekain, betul, betule, betulle, batulla, betill(e), betazal, begigaineko biloak* eta *begigaineko iliek*; 58190an *betill(e), betule, betula, begiule, begiko ile, begi(ko)bilo, betazale(ta)ko ile, betazaleko bilo, betazal, begiezpaleko bil(h)o* eta *begiko kalpar*. 58200an, *begi(ko)azal, betazal, begigan(e), begigain, pestañal* eta *betillak*. Izendapen deskribatzaileak erabiltzen dira (Julià 2011: 56-57), besteak beste, gainerako hizkuntzetan ere: gaztelaniaz, *piel de ojo, pellejo del ojo*; katalanez, *pell de l'ull*; galegoz, *papo do ollo* eta *piel do ollo*.

Galderetako zenbaitetan, ez gorputz-atalari dagozkionetan bakarrik, erreferentziatzat hartzen den objektua, gorputz atalaren zein gertaeraren izendapena lortzeko, kasu batzuetan atzamarrarekin edo eskuekin seinالاتu izan da. Horixe da bai izendapen metaforiko-metonomikoa duten galderetan, bai izendapen deskribatzailea dutenenetan, posposizio-sintagmen agerpena eragiten duena, erreferentzia-elementuaren bidez kokatzen baita izendapena: *begiko ile* (58190), *begiko bilo* (58190), *betazaleko bilo* (58190), *begiko kalpar* (58190), *begiko ttapal* (58190).

### 3.1. Gorputz-ataletatik gorputz-ataletara

58180 'ceja / sourcil', 58190 'pestaña / cil' eta 58200 'párpados / paupière' galderetan gertatu bezala, behin baino gehiagotan gertatzen da gorputz-atalen kasuan izendapen bera jasotzea gorputz-atal bat baino gehiago izendatzeko. Juliàk (2007: 158) *metonimia espazialtzat* hartzen ditu era horretako kasuak. Lehenago Ullmanek (1980: 247) aipatu zituen metonimia-transfe-



rentziak harreman espazialean oinarritzen dira. Berak esaten duenaren arabera, gorputz-atal batzuen mugak ez dira oso argiak eta, beraz, horrek justifikatzen du latinezko *coxa* ‘aldaka’ hitzaren esanahiaren mutazioa frantseseko *cuisse* ‘izter’ hitzera. EHHAren materialera itzulita, antzeko zerbaite gertatzen da nahitaez muga garbia ez duten gorputz atal batzuetan: 58180 ‘ceja / sourcil’ eta 58110 ‘frente / front’ galderetan jaso da *bekosko* hitza. Mugakide izateak, adibide horretan bezala, badu eragina bi atalak izendatzeko forma bakarraren baliagarritasunean.

Gorputz-atalen arteko muga argia izatea gorabehera, 58. eta 59. gaietan aztertutako galderetan jasotako superlema etengabe errepikatzen dira beste gorputz-atal batzuei buruzkoetan; hots, etengabekoak dira gorputz-atalen eremuko metonimia-transferentziak –ez dira gorputz-atalak halabeharrez mugakide izan behar; bai, ordea, gertuko–, etengabekoak diren moduan pertsonen eta animalien gorputz-atalen izendapenen arteko transferentziak ere.

Metonimia-transferentzietan dagokienez, buruaren ataletatik hasita, 58010 ‘cabeza / tête’ galderan bildutako superlema nagusietatik (*buru*, *bü*, *kasko* eta *kaskar*) *kasko* eta *kaskar* dira gorputz-ataleko lotutako beste galdera bateko kontzeptua izendatzeko erabilitakoak, 58640 ‘nuca / nuque, occiput’ galderan ere bildu baitira.

58020 ‘cara / visage’ galderan *aurpegi*, *bisaia*, *musu*, *begitarte*, *betarrots* eta *figura* dira superlema nagusiak. Horietatik beste gorputz-atal batzuk izendatzeko erabilitakoak dira *musu* eta *mosu* superlema, esate baterako, *betarrots* superlemaekin batera: 58290 ‘nariz / nez’ eta 58400 ‘mejilla / joue’ galderetan ere azaltzen dira *musu* eta *mosu*; *betarrots*, aldiz, 58180 ‘ceja / sourcil’ galderan ageri da.

58110 ‘frente / front’ galderan bildutako superlema nagusiak honako hauek dira: *bekoki*, *kopeta*, *belar* eta *bonte*. *Bekoki* 58100 ‘sien / tempe’ eta 58180 ‘ceja / sourcil’ galderan ere jaso da, *kopeta* 63070 ‘trenza / tresse’ galderan ere bildu den bitartean.

58120 ‘sesos / cervelle’ galderan *garaun*, *muñ*, *burumuñ* eta *hün* dira superlema nagusienak. Horietatik beste gorputz-atal batzuetan agertzen dena da *muñ*, 58100 ‘sien / tempe’ eta 59340 ‘médula / moelle’ galderetan ere ageri baita.

58290 ‘nariz / nez’ galderan superlema nagusiak *sudur, sur, mustur* eta *musu* dira. Superlema horietatik beste galdera batzuetan agertzen dena *musu da*, 58020 ‘cara / visage’ eta 58400 ‘mejilla / joue’ galderetan ere azaltzen baita.

58380 ‘mandíbula / mâchoire’ galderan jasotako superlema nagusiak *matrailezur, matelezur, mazel* eta *mandibula* dira. *Matrailezur* eta *matelezur* 58390 ‘pómulo / pommette’ galderan ere jaso dira eta *mazel* 58400 ‘mejilla / joue’ galderan ere bai. 58460 ‘diente / dent’ galderan superlema nagusiak *agin*<sup>8</sup>, *hagin, hortz, ortz* eta *dentadura* dira. *Agin* bildu da 58610 ‘dientes incisivos / incisive’, 58470 ‘colmillo / canine’ eta 58480 ‘muela / molaire’ galderetan ere. Azken galdera horretan azaltzen da *hagin* ere. *Hortz* 58610 ‘dientes incisivos / incisive’, 58470 ‘colmillo / canine’, 58480 ‘muela / molaire’ galderetan ere jaso da eta *ortz* 58610 ‘dientes incisivos / incisive’ galderan ere bildu ahal izan da.

58550 ‘barbilla / menton’ galderaren superlema nagusiak *okotz, kokotz, kokots* eta *bidar* dira. *Kokots* 58610 ‘nuez de la garganta / pomme d’Adam’ galderan ere jaso da.

58600 ‘cuello / cou’ galderaren superlema nagusiak *sama, lepo* eta *lepho* dira. *Sama* 58620 ‘garganta / gorde’ galderan ere bildu da. *Lepo* 59050 ‘espalda / dos’, 59140 ‘regazo / giron’ eta 59030 ‘hombro / épaule’ galderetan ere ageri da. *Espalda* 27220 ‘omóplato / omoplate’, 59030 ‘hombro / épaule’ eta 59050 ‘espalda / dos’ galderetan ere jaso da.

58610 ‘nuez de la garganta / pomme d’Adam’ galderan superlema nagusiak *gorgoil, intxaur, zintzur, kizkur* eta *txori* dira. 58620 ‘garganta / gorge’ eta 58660 ‘tráquea / trachée-artère’ galderetan jaso da *gorgoil*. *Zintzur* 58620 ‘garganta / gorge’, 58630 ‘campanilla (úvula) / lulette’ eta 58660 ‘tráquea / trachée-artère’ galderan.

58620 ‘garganta / gorge’ galderan superlema nagusiak *sama, extarri, garganta* eta *zintzur* dira. *Sama*, esan bezala, 58600 ‘cuello / cou’ galderan ere bildu da. *Garganta* 58660 ‘tráquea / trachée-artère’ galderan ere jaso da,

<sup>8</sup> Superlemek ahozko jardunean oinarritutakoak dira eta galdera batzuetan superlema desberdinak sortzeko irizpidea izan daiteke berriemaileek emandako erantzunen ahoskera. Erantzunen batek edo batzuek hasperena izateak zein ez izateak, esate baterako, eragina izan ohi du grafian.

*zintzur* 58630 ‘campanilla (úvula) / lulette’ galderan, *extarri* 58660 ‘tráquea / trachée-artère’ galderan bildu da.

58640 ‘nuca / nuque, occiput’ galderan bildutako superlema nagusiak *kokot*, *lepoezur*, *gark(h)ol*, *gar(r)ondo*, *burugi(b)el*, *lephogi(b)el*, *lepozoko*, *lepazain*, *lepagañ* eta *saputz* dira. *Kokot* 58600 ‘cuello / cou’ galderan ere jaso da. *Lepo ezur* 58610 ‘nuez de la garganta / pomme d’Adam’ galderan ere jaso da; *saputz* 58100 ‘sien / tempe’ galderan ere ageri da eta *lepagañ* 58660 ‘tráquea / trachée-artère’ galderan ere bai.

58660 ‘tráquea / trachée-artère’ galderan superlema nagusiak *zintzurreste*, *zintzurkorda*, *zintzur*, *estegorri*, *gangar*, *gangarda*, *garganta*, *garrangail*, *gorgoil*, *gongrio*, *aphürkoi*, eta (*kontrako*) *extarri* dira. *Zintzurreste* eta *gorgoil* 58610 ‘nuez de la garganta / pomme d’Adam’, 58620 ‘garganta / gorge’ eta 58630 ‘campanilla (úvula) / lulette’ galderetan bildu dira. *Estegorri* 58620 ‘garganta / gorde’ eta 58660 ‘tráquea / trachée-artère’ galderetan ere ageri da. *Gangar* eta *garrangail* 58610 ‘nuez de la garganta / pomme d’Adam’ galderan ere azaltzen dira. Azkenik, *zintzur* 58620 ‘garganta / gorge’, 58630 ‘campanilla (úvula) / lulette’ galderan eta 58610 ‘nuez de la garganta’ galderan ere jaso da.

### 3.2. Gorputz-ataletatik harago

Gorputz-atal batzuen izendapenak beste gorputz-atal batzuk izendatzeko aukeretatik harago bada beste semantika-eremu batzuetan erabiltzeko modua. Horren adibide dira gorputz-atalak izendatzen diren formekin izendatzen diren landareak edo landarearen parteak, lan-tresnak edo lan-tresnen atalak, erliebea, arropak edo, azkenik, animalien gorputzaren atalei lotutakoak. *EHHA*ren galde-sortan dauden gorputz-atalei buruzko galderetatik kopuruaren aldetik emankorrenak direnak hartuko dira kontuan, izendapen horiekin sor daitezkeen hitz-elkarketak aparte utzita:

- a) 58010 ‘cabeza / tête’ galdera.
  - Superlema nagusiak: *buru*, *bü*, *kasko* eta *kaskar*.
    - *Buru* 21110 ‘cabeza de ajo / tête d’ail’ galderan ere bildu da, 24020 ‘hocico, morro / mufle’, 26300 ‘unidad de rebaño / unité de troupeau’, 38220 ‘cubo (de la rueda) / moyeu’, 40050 ‘punta

de la besana / chaintre' eta 48060 'rueda o muela / meule' galderan ere azaltzen da. *Bürü* 43180 'espiga / épi' galderan ere ageri da. *Kasko* 13030 'cresta (de una montaña) / crête', 13140 'puerto de montaña / col', 19430 'apea / partie haute du fût', 24070 'pezuña / sabot', 31020 'conjunto de casas junto a la iglesia / fermes auprès de l'église', 43050 'punta del maíz / sommet du maïs' eta 51030 'mendrugos / croûton' galderan ere ageri da.

b) 58130 'oreja / oreille' galdera.

- Superlema nagusiak: *belarri*, *beharri* eta *bearri*.
  - *Belarri* 36240 'asa / anse, poignée', 38070 'clavija / anneau', 39040 'orejeras (del arado) / oreilles', 39060 'esteva / mancheron' eta 39120 'vertedera / versoir' galderetan ere azaldu da. *Be- arri* 36240 'asa / anse, poignée', 38070 'clavija / anneau', 39040 'orejeras (del arado) / oreilles', 39060 'esteva / mancheron' eta 39120 'vertedera / versoir' galderetan ere ageri da. *Beharri* 36240 'asa / anse, poignée', 38070 'clavija / anneau', 39040 'orejeras (del arado) / oreilles', 39060 'esteva / mancheron' eta 39120 'ver- tederas / versoir' galderetan ere bildu da.

c) 58160 'ojo / oeil' galdera.

- Superlema nagusi bat dago: *begi*.
  - 14050 'arco de puente / arche' galderan azaltzen da, 19060 'bro- te (de los árboles) / bourgeon', 19500 'nudo de los árboles / noeud', 23020 'brote (de las patatas) / germe', 39220 'cubo (de la rueda) / moyeau', 50030 'grumo / grumeau', 55100 'ojo de la aguja' eta 62240 'nudo / noeud' galderetan legez.

d) 59010 'tronco / tronc' galdera.

- Superlema nagusiak: *gerri*, *garri*, *gorputz*, *gorphitz*, *gorputzerdi*, *gor- putzgain*, *tronko*, *trunko*, *trongo*, *trungo*, (*korputz*)*kaja* eta *gerrikoz gain*.
  - *Gerri* eta *garri* 19030 'tronco (del árbol) / tronc', 19420 'maderable / bille' eta 59130 'cintura, talle / ceinture, taille' galderetan ere jaso dira. *Gorputz* jaso da 12120 'Corpus Christi / Fête Dieu', 19030 'tronco (del árbol) / tronc', 21160 'tallo de planta / tige' eta 59020 'cuerpo / corps' galderan ere. *Gorphitz* 59020 'cuerpo / corps' gal-

deran ere ageri da. *Tronko* 19030 ‘tronco (del árbol) / tronc’, 19420 ‘maderable / bille’, 19490 ‘picador / billot’, 21160 ‘tallo de planta / tige’ eta 48090 ‘maderos del lagar / planches placées au-dessu de presoir’ galderetan ere jaso da. *Trunko* 19410 ‘tocón / souche’, 19420 ‘maderable / bille’, 19490 ‘picador / billot’, 24750 ‘tabla del carnicero / billot du boucher’, 33350 ‘viga / poutre (en général)’, 40241 ‘narria 2 / rouleau 2’ eta 48090 ‘maderos del lagar / planches placées au-desus du presoir’ galderetan ere azaldu da. *Kaja* 28330 ‘jaula / mue, cage’, 30030 ‘colmena / ruche’, 35230 ‘cajón / tiroir’, 37291 ‘albarda 2 / bât 2’, 38040 ‘escalera (del carro) / lit (de la charrette)’, 38050 ‘adra lateral / ridelle’, 38100 ‘caja del carro / caisse (du char)’, 43100 ‘sementero / semoir’ eta 48110 ‘agujero o canalillo / trou, gouttière’ galderetan ere jaso da.

e) 59100 ‘costilla / côte’ galdera.

- Superlema nagusiak: *kosta*, *kost(a)ezur*, *kostill(a)*, *kostill(a)ezur*, *kostalet*, *kostelezur*, *saiets*, *sai(h)etsezur*, *saits*, *saitsezur*, *saets*, *sa(h)etsezur*, *saiatz*, *saxki* eta *paletilla*.

– *Kosta* 13010 ‘pendiente / terrain en pente’. 17020 ‘cuesta / raidillon’, 19550 ‘costero / dosse’ eta 27210 ‘costillas / côtes’ galderetan ere bildu da. *Kostaezur*, *saietz*, *saihetsezur*, *sahetsezur* eta *saiatz* 27210 ‘costillas / côtes’ galderan ere ageri dira. *Kostilla* 27210 ‘costillas / côtes’ eta *kostillaezur* 27210 ‘costillas / côtes’ galderan ere azaldu dira. *Kostalet* 27210 ‘costillas / côtes’ galderan ere bai. *Saets* 13050 ‘ladera / versant’, 19220 ‘arce / érable’, 19260 ‘sauce / saule’, 38020 ‘puente (del carro) / longeron’, 38050 ‘adral lateral / ridelle’ eta 39120 ‘vertedera / versoir’ galderan ere azaltzen da. Azkenik, *paletilla* 27220 ‘omóplato / omoplate’ eta 39100 ‘cuchilla (del arado) / coutre’ galderan ere jaso da.

f) 59160 ‘cadera / hanche’ galdera.

- Superlema nagusiak: *kadera*, *mokor(ezur)*, *eperdimukur*, *epermu(n)txur*, *ipurtxuntxur*, *meaka*, *aldaka*, *aldamen*, *(h)anka ezur*, *ipurtezur*, *erramuezur*, *eperdi*, *epermami(n)*, *(h)anka* eta *(-)giltz(-)*.
- *Kadera*, *hanka ezur* eta *ipurtezur* 27250 ‘hueso de la cadera / os de la hanche’, 27260 ‘pata / pied’ eta 35240 ‘silla / chaise’ galderan ere

bildu dira. *Mokorrezur* 27250 ‘hueso de la cadera / os de la hanche’ galderan ere badago. *Mokor* 27250 ‘hueso de la cadera / os de la hanche’, 40070 ‘gleba / motte de terre’ eta 51030 ‘mendrugo / croûton’ galderan jaso da. *Eperdimukur* 59380 ‘nalga / fesse’ galderan ere badago. *Ipurtxuntzur* ‘27250 ‘hueso de la cadera / os de la hanche’ eta 28100 ‘rabadilla (de las aves) / croupion’ galderan ere ageri da. *Meaka* 13050 ‘ladera / versant’ eta 27560 ‘tocino de la panza / ventrèche’ galderan ere bildu da. *Aldaka* 19550 ‘costero / dosse’ galderan ere jaso da. *Aldamen* 38020 ‘puente (del carro) / longeron’ eta 38130 ‘telera (del carro) / armon’ galderan ere ageri da. *Ankaezur* 24050 ‘corva / jarret’, 27250 ‘hueso de la cadera / os de la hanche’ eta 59140 ‘pantorrilla / mollet’ galderan ere badago. *Erramuezur* 27200 ‘espinazo / échine’ eta 27250 ‘hueso de la cadera / os de la hanche’ galderan ere badago. *Eperdi* 19410 ‘tocón / souche’, 27250 ‘hueso de la cadera / os de la hanche’, 28100 ‘rabadilla (de las aves) / croupion’, 39030 dental (de arado) / sep’, 59290 ‘culo / cul’ eta 59380 ‘nalga / fesse’ galderan ere jaso da. *Epermami* 59380 ‘nalga / fesse’ galderan ere badago. *Anka* 27250 ‘hueso de la cadera / os de la hanche’, 27260 ‘pata / pied’, 59380 ‘nalga / fesse’, 59400 ‘pierna / jambe’ eta 59430 ‘pie / pied’ galderan ere jaso da. *Hanka* 27250 ‘hueso de la cadera / os de la hanche’ galderan ere bai. *Giltz* 27250 ‘hueso de la cadera / os de la hanche’, 34100 ‘llave / clé’, 39080 ‘cuña (del arado) / coin (de ‘alaire)’, 41250 ‘abrazadera de la hoja / anneau, douille’, 47110 ‘desaguadero, vaciadero / bonde’, 58100 ‘sien / tempe’ eta 59150 ‘ingle / aine’ galderan ere bildu da.

g) 59290 ‘culo / cul, postérieur’ galdera.

- Superlema nagusiak: *ip(h)urdi*, *purdi*, *ipurde*, *iphordi*, *eperdi*, *epurdi*, *eporde*, *epordi*, *uzki*, *üzkü*, *poça*, *pope*, *gibelalde* eta *gibelondo*.
  - *Ipurdi* 19410 ‘tocón / souche’, 24320 ‘vulva (animales) / vulve’, 28100 ‘rabadilla (de las aves) / croupion’, 55100 ‘ojo de la aguja / chas’ eta 59380 ‘nalga / fesse’ galderan ere jaso da. *Iphurdi* 28100 ‘rabadilla (de las aves) / croupion’ eta 55100 ‘ojo de la aguja / chas’ galderan. *Purdi* 19410 ‘tocón / souche’ galderan ere badago. *Eperdi* 19410 ‘tocón / souche’, 27250 ‘hueso de la cadera / os de la

hanche', 28100 'rabadilla (de las aves) / croupion', 39030 'dental (del arado) / sep', 59160 'cadera / hanche' eta 59380 'nalga / fesse' galderan ere ageri da. *Epurdi* 19410 'tocón / souche', 28100 'rabadilla (de las aves) / croupion' eta 59380 'nalga / fesse' galderan ere bildu da. *Eporde* 19410 'tocón / souche' eta 55100 'ojo de la aguja / chas' galderan ere badago. *Uzki* 28100 'rabadilla (de las aves) / croupion' eta 55100 'ojo de la aguja / chas' galderan ere azaltzen da. *Úzkü* 55100 'ojo de la aguja / chas' galderan ere jaso da. *Popa* 59380 'nalga / fesse' galderan eta 65030 'vulva (mujeres) / vulve' galderan ere ageri da, *gibelalde* 28100 'rabadilla (de las aves)', 32030 'parte trasera (de una casa) / derrière (de la maison)' eta 59380 'nalga / fesse' galderan ere jaso da.

h) 59400 'pierna / jambe' galdera.

- Superlema nagusiak: *anka*, *zango*, *zank(h)o*, *zankho*perna, *zangar*, *zangarrezur*, *zangomakil*, *berna*, *p(h)erna*, *txanka*, *izter*, *ankixter*, *(anka)kanille*, *punturrilla* eta *kadera*.
  - *Anka* 27250 'hueso de la cadera / os de la hanche', 27260 'pata / pied', 59160 'cadera / hanche' eta 59380 'nalga / fesse' galderan ere ageri da. *Zango* 19030 'tronco (del árbol) / tronc', 21160 'tallo de planta / tige' eta 23030 'planta de la patata / fane', 27260 'pata / pied', 27290 'zancarrón / os du jambon', 32050 'pantal / étai', 33260 'pie derecho / poinçon', 37230 'clavija trasera / reculement', 59410 'pantorrilla / mollet', 59430 'pie / pied' eta 59690 'nervio / nerf' galderan ere ageri da. *Zankho* 21160 'tallo de planta / tige' galderan, 23030 'planta de la patata / fane', 59430 'pie / pied', 44040 'vencejo (para atar el haz) / lien', 46030 'cepa / cep' eta 59430 'pie / pied' galderan ere ageri da. *Zanko* 27260 'pata / pied' eta 59410 'pantorrilla / mollet' galderan ere jaso da. *Zangar* 21160 'tallo de la planta / tige', 23030 'planta de la patata / fane', 24050 'corva / jarret' eta 59410 'pantorrilla / mollet' galderan ere bildu da. *Zangomakil* eta *berna* 59410 'pantorrilla / mollet' galderan ere badaude. *Txanka* 27270 'jamón / jambon' galderan eta 34090 'quicio; gozne / penture; gond' galderan ere ageri da. *Izter* 38020 'puen-



te (del carro) / longeron', 38140 'guía / flêche', 59150 'ingle / aine' eta 59400 'pierna / jambe' galderan ere jaso da.

i) 59430 'pie / pied' galdera.

- Superlema nagusiak: *oin*, *huñ*, *ankaonñ*, *zangooin*, *zangohuñ*, *zankhohuñ*, *zango*, *zankho*, *zangozola*, *zankhozola*, *anka*, *ainka*, *ankazapata*, *ankaexpal* eta *kadera*.
  - *Oin* 27260 'pata / pied' eta 59460 'planta del pie / plante du pied' galderan ere ageri da, *zango* 'tronco (del árbol) / tronc', 21160 'tallo de planta', 23030 'planta de la patata / fane', 27260 'pata / pied', 27290 'zancarrón / os du jambon', 32050 'puntal / étai', 33260 'pie derecho', 37230 'clavija trasera / reculement', 59400 'pierna / jambe', 59430 'pie / pied' eta 59690 'nervio / nerf' galderan ere ageri da. *Zangosagar* 24050 'corva / jarret' ere badago. *Zankho* 23030 'planta de la patata / fane', 27260 'pata / pied', 44040 'vencejo (para atar el haz) / lien' eta 46030 'cepa / cep' galderan ere bildu da. *Zangozola* eta *zankhozola* 59460 'planta del pie / plante du pied' galderan ere jaso dira. *Anka* 27250 'hueso de la cadera / os de la hanche', 27260 'pata / pied', 59160 'cadera / hanch' eta 59480 'nalga / fesse' galderan ere ageri da. *Ankazapata* 24070 'pezuña / sabot' galderan ere badago. *Kadera* 27250 'hueso de la cadera / os de la hanche', 27260 'pata / pied', 35240 'silla / chaise', 59160 'cadera / hanche' eta 59400 'pierna / jambe' galderan ere azaldu da.

j) 59480 'brazo / bras' galdera.

- Superlema nagusia *beso* da.
  - *Beso* 27220 'omóplato / omoplate', 27260 'pata / pied', 27270 'jamón / jambon', 32050 'puntal / étai', 33270 'alfarda / arbalétrier', 37260 'limonera (del carro) / limon', 38130 'telera (del carro) / armon', 39060 'esteva / mancheron', 42010 'tranco / andain', 48070 'tablas encima de la pulpa / planches placées sur le marc', 48080 'tablones del lagar / autres planches du pressoir', 48090 'maderos del lagar / planches placées au-dessus du pressoir' eta 48100 'cargadero del lagar / poutre qui fait poids ou brebis' galderan ere azaldu da.



Ikus daitekeenez, gorputz-atalei buruzko izendapenetan polisemiak badu pisua: alde batetik, semantika-eremu bereko kontzeptuak izendatzen dira; bestetik, beste semantika-eremu bateko kontzeptuei izena jartzeko baliatzen dira. Egia da, halaber, polisemia-kasuen metafora-metonomiak oso lagungarri izaten direnez, horiek erabiltzen direna.

#### 4. Ondorioak

Ikusitakoak ikusita, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* azterketa egiten denean, sorrera-prozesuarena, hau da, historiarena, ez litzateke horren lotura estua egin behar *Erizkizundi Irukoitzarekin*; izan ere, informazioa lortzeko metodologiari dagokionez, bien arteko distantzia txikia izanagatik ere, helburuen artekoa zatia handiagoa da. Herririk herri bildutako informazioa euskara literarioaren mesedetan erabili nahi izan zuen Azkuek; horixe izan zen bere helburua, behintzat. Haatik, *EHH*Aren helburuak zehaztu zirenean ez zen euskara literarioaren gaineko aipamenik ere egin; izan ere, euskara literarioaren mesedetan aritzea ezin esan daiteke hizkuntza-atlasaren zeregin behinena denik. Hala ere, *EHH*Aren argitalpena amaitzen denean –ale bakarra falta da–, baliteke *EHH*Ak euskara literarioari ekarpenen bat egitea, nahiz eta hori ez izan hasierako helburuen artean. Dagoeneko Euskaltzaindiaren webgunean *Euskaltzaindiaren Hiztegia* kontsultatzen denean eta bilaketa aurreratuaren aukerak baliatzen direnean azaltzen da, besteak beste, *EHH*Ari erreferentzia egiten dion esteka bat:

Estekak

HBO   OEH   ESHA   XX. mendea   Lexikoaren Behatokia

Oraingoz ezin esan daiteke *ESHA Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* iturria denik, ezta izango denik ere, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* iturriak idatziz dokumentatuak izan behar baitira eta hala izan dira orain artekoan, behinik behin.

Bestalde, *Erizkizundi Irukoitzak ESHA*rekin duen harremana gorabehera eta *EHH*Ak euskara literarioarekin izan dezakeena gorabehera, ezin-

bestean elkarren alboan jarri beharrekoak dira hizkuntza-atlasak eta herri-kultura. Galde-sorta bera herri-kulturan errotutakoa da: alegia, gai konkretuak zein abstraktuak izan, hala landa-eremu tradizionalari nola oinarritzko lexikoari dagozkionak izan, lexiko-gaiak izan ala ez izan, galde-sorta gaiaren arabera ordenatua da, semantika-ordena da galde-sortaren oinarrian dagoena.

Gorputz-atalen gaian jasotako izendapenetako asko gorputz-atalen gai-ko beste gorputz-atal batzuk izendatzeko ere erabiltzen dira. Era berean, gorputz-atalen gaian jasotako izendapen batzuk semantika-eremu horretatik kanpo dauden beste kontzeptu batzuk izendatzeko ere baliatzen dira. Hitz-kopuru txikiena duten gorputz-atalak dira beste kontzeptu batzuei –ez ezinbestean semantika-eremu berekoak– izena jartzeko emankorrenak eta, aitzitik, gorputz-atal bati izena emateko superlema desberdinen kopurua handiagoa den kasuetan, beste kontzeptu batzuk –ez ezinbestean semantika-eremu berekoak– izendatzeko aukera askoz txikiagoa da. Izendapen-kopuru txikia eta horien bidez beste kontzeptu batzuei izena emateko emankortasun handia edo handi samarra dutenen artekoak dira monolexematikoak edo ia-ia monolexematikoak direnak. Horien artekoak dira 59480 ‘brazo / bras’ edo 58160 ‘ojo / oeil’ galderak. Aitzitik, izendapen-kopuru handia, baina beste kontzeptu batzuk izendatzeko baliagarritasun txikia edo txiki samarra dutenen artean sartuko lirateke lehenago aipatutako 58180 ‘ceja / sourcil’, 58190 ‘pestaña / cil’ eta 58200 ‘párpados / paupière’ galderetan bildutakoak. Emankor gertatu diren kasuren batean, gainera, emankortasun hori hiruren arteko kontzepturen bati izena emateko erabilgarritasunean oinarritzen da; ez besterik. Hiru gorputz-atalak nolabait mugakide izateak ere badu eragina horretan. Sarritan metafora-metonomia bidezko izendapena erabiltzen da kontzeptu batetik bestera jauzi egiteko.

58180 ‘ceja / sourcil’, 58190 ‘pestaña / cil’ eta 58200 ‘párpados / paupière’ galderetan ikusi den bezala, bat-etortzea dago beste hizkuntza batzuetan emandako izendapenekin. Tradizioan beste hizkuntza-atlas batzuetan bereziki aztertutako galderak emankor gertatu dira *EHHA*n ere: ez kopuruz bakarrik, ezpada hitz bakoitzaren atzean izan daitekeen informazioari dago-kionez. 06030 ‘murciélago / chauve-souris’ galderan datorrena ikertzaile

batek baino gehiagok aipatu du, bakoitzari dagokion hizkuntzan. Malkiel (1951), Sanchis Guarner (1956) eta Mouton (2006) izan dira horietako zenbait. Horixe da, hain zuzen ere, hizkuntza-atlasen eta herri-kulturaren harremanaren arteko beste adibide bat eta erraz egin daiteke gorputz-ataletatik familia-harremanetarako bidea edo familia-harremanetatik zoonimoe-tarakoa, bizpahiru semantika-eremu bakarrik aipatzearren.

## 5. Bibliografia

ANDERSEN, Elaine, 1978, «Lexical Universals of Body-Part Terminology», *Universals of Human Language*. Stanford-California: Stanford University Press, 335-368.

AURREKOETXEA, Gotzon, 2004, «El atlas lingüístico vasco: 20 años de innovación tecnológica», *Dialectologia i recursos informàtics*. Barcelona: Universitat de Barcelona, 15-41.

AZKUE, Resurreccion Maria, 1921, *Erizkizundi Irukoitza* (kaier inprimatuak), ABA-EUS 1. 203. 03. 1936-15 (KEA, 0187-0190).

BÄHR, Gerhard., 1935, *Los nombres de parentesco en vascuence*. Bermeo: Idaztegia Irarkola.

BALDINGER, Kurt, 1964, «Sémasiologie et onomasiologie», in *Revue de Linguistique Romane*, 28 (1964) 249-272.

BLANK, Andreas; GÉVAUDAN, Paul; KOCH, Peter, 2000, «Onomasiologie, sémasiologie et l'étymologie de langues romanes: Esquisse d'un projet», *Actes du XXIIe Congrès International de Linguistique et de Philologie Romanes IV* (2000) 103-114.

BROWN, Cecil, 1976, «General Principles of Human Anatomical Partonomy and Speculations on the Growth of Partonomic Nomenclature», *American Ethnologist* 3/3 (1976) 400-424.

———, 2005a, «Hand and Arm», in Martin Haspelmath *et al.* (prestatzailea): *The World Atlas of Language Structures*. Oxford: Oxford University Press, 129, 522-525.

———, 2005b, «Finger and Hand», in Martin Haspelmath *et al.* (prestatzailea): *The World Atlas of Language Structures*. Oxford: Oxford University Press, 130. atala, 526-529.

—— eta Witkowski, S.R., 1981, «Figurative Language in a Universalist Perspective», *American Ethnologist* 8/3 (1981) 596-615.

CAMINO, Iñaki, 2009, *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.

CARSTON, Robyn; WEARING, Catherine, 2011, «Metaphor, hyperbole and simile: A pragmatic approach», *Language and Cognition* 3-2 (2011) 283-312.

COROMINAS, Joan, 1970, «Hurgando en los nombres de parentesco (alargun, aizpa, agure, guraso)», *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta* 2 (5) (1970) 169-182.

COSERIU, Eugen, 1977, «La geografía lingüística», *El hombre y su lenguaje. Estudios de teoría y metodología lingüística*. Madrid: Gredos, 103-158.

DÍEZ, Olga, 2001, «Metaphor, metonymy, and image-schemas: an analysis of conceptual interaction patterns» *Journal of English Studies* 3 (2001-2), 47-63.

Euskaltzaindia, 1984, Iker 3, *Erizkizundi Irukoitza* (Euskera 1925), prestatzailea: Ana Maria Echaide. Bilbo.

——, 1993, Euskera 38, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas: galdesorta* (1993-3), prestatzaileak: Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain. Bilbo.

——, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Sarean: [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)

——, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*. Bilbo: Euskaltzaindia. Sarean: [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)

FUSTER, María Trinidad, 1996, «Voces de creación metafórica sobre el maíz y el trigo en el atlas lingüístico y etnográfico de Aragón, Navarra y Rioja», *E.L.U.A.* 11 (1996) 139-147.

GARATE, Justo, 1933, «Ensayo sobre los nombres vascos de parentesco», *Revista Internacional de los estudios vascos* 24 (1) (1933) 106-107.

GARCÍA MOUTON, Pilar, 1987a, «Motivación en nombres de animales», *LEA IX* (1987) 189-197.

——, 1987b, «Dialectología y cultura popular. Estado de la cuestión», *RDTP XLII* (1987) 49-73.

——, 2006, «Los nombres del murciélago en los atlas regionales españoles», *Quaderni di Semantica XXVII* 1-2 (2006) 289-299.

GOOSSENS, Louis, 2002, «Metaphonymy: The interaction of metaphor and metonymy in expressions for linguistic action», in Dirven, R., eta Pörings, R. (prestatzaileak) *Metaphor and Metonymy in Comparison and Contrast*. Berlin: Mouton de Gruyter. 349-377.

HEINE, Bernd; CLAUDI, Ulrike; HÜNNEMEYER, Friederike, 1991, *Grammaticalization: a Conceptual Framework*. Chicago: University of Chicago Press.

JULIÀ, Carolina, 2007, *Léxico y variación: las denominaciones de las partes del ojo*. Bellaterra: Universitat Autònoma de Barcelona. Sarean; <http://hdl.handle.net/2072/4360> [azken kontsulta: 2018-12-3].

———, 2010, *Estructura y variación en el léxico del cuerpo humano*. Bellaterra: Universitat Autònoma de Barcelona. Tesia. Sarean: <http://hdl.handle.net/10803/4903> [azken kontsulta: 2018-12-30].

———, 2011, «Procedimientos de creación léxica en las designaciones ibero-románicas del párpado (I)», *Revista de Filología Románica* 28 (2011) 49-68. [https://doi.org/10.5209/rev\\_rfrm.2011.v28.37219](https://doi.org/10.5209/rev_rfrm.2011.v28.37219) [azken kontsulta: 2018-12-30].

———, 2012, *Variación léxica en los nombres de las partes del cuerpo. Los dedos de la mano en las variedades hispanorrománicas*. Frankfurt: Studien zur romanischen Sprachwissenschaft und interkulturellen Kommunikation.

KINTANA, Jurgi, 2015, *Azkue, Bilbotar ezezaguna*. Donostia: Erein.

KÖVECSES, Zoltan eta RADDEN, Günter, 1998, «Metonymy: Developing a Cognitive Linguistic View» *Cognitive Linguistics* 9 (1) (1998) 37-77.

KRASKA-SZLENK, Iwona, 2014, «Semantic extensions of body part terms: common patterns and their interpretation», *Language Sciences* 44 (2014) 15-39.

LAKOFF, George, 1987, «Image Metaphors», *Metaphor and Symbolic Activity* 2(3) (1987), 219-222.

MALKIEL, Yakob, 1951, «Some Names of the Bat in Ibero-Romance», *Hispanic Review* 19/13 (1951) 238-263 (I).

MITXELENA, Koldo, 1964, «El Atlas Lingüístico Vasco», *Presente y futuro de la lengua española: Actas de la Asamblea de Filología del Congreso de Instituciones Hispánicas I* (1964) 427-442.

MOLINA, Isabel, 2002, «Procedimientos de nominación en la flora silvestre: *agavanzo, escaramujo, rosál bravío*», *RDTP* 2 (2002) 189-202.

PEIRSMAN, Yves eta GEERAERTS, Dirk, 2006, «Metonymy as a prototypical category», *Cognitive Linguistics* 17 (3) (2006) 269-313.

PENADÉS, Inmaculada, 2010, «La teoría cognitiva de la metonimia a la luz de las locuciones nominales somáticas», *RSEL* 40/2 (2010) 75-94.

POP, Sever, 1950, *La Dialectologie. Aperçu historique et méthodes d'enquêtes linguistiques*. J. Duculot, Lovaina.

SANCHIS GUARNER, Manuel, 1953, *La cartografía lingüística en la actualidad y el Atlas de la Península Ibérica*. Palma Mallorcakoa: Instituto Miguel de Cervantes.

———, 1956, «Los nombres del murciélago en el dominio catalán», *Revista de Folología Española* XL 1/4 (1956) 91-125.

SONG, Shenli, 2011, «Metaphor and Metonymy-A Tentative Research into Modern Cognitive Linguistics», *Theory and Practice in Language Studies* 1, 1 (2011) 68-73.

STEPIEN, Maciej Adam, 2007, «Metáfora y metonimia conceptual en la fraseología de cinco partes del cuerpo humano en español y polaco», *Anuario de Estudios Filológicos* XXX (2007), 391-409.

ULLMAN, Stephen, 1980, *Semántica. Introducción a la ciencia del significado*. Madrid: Aguilar.